

### 3 HAUTESKUNDEAK

**Jesus Zaballos**  
**PSE-EEko**  
**alkategaia**

Jesus Zaballos da bigarren aldiz herriko PSE-EEko alkategaia. Lau urte hauetan oposizioaren ahotsa izan da eta bera alkate izatekotan, herrian berehala hartu beharreko zenbait arazori irtenbidea emateko konpromisoa azaltzen du. Izan ere, urte hauetan herriaren garapena eten egin dela uste du.



### 4 UDALA

**Legegintzaldiko azken ohiko batzarra**

Asteartean egin zen legegintzaldiko azken ohiko udalbatzarra. Hala ere, alderdiek gaur hitzordu garrantzitsua dute ez ohiko bilkuran 2015eko aurrekontuak onartu beharko dituztelako. Hau gaindituta, lau urte hauetako bilkura desegiten da ekainean, hauteskundeak pasata, berria osatzeko. PPko Vanessa Velezek esker oneko hitzak izan zituen laguntza eman dioten guztientzat eta PSE-EEko Martin Morenok udaltxean egindako 29 urtetako ibilbideari amaiera eman zion.

## Euskal Herriko 3. Batukaden Topaketa

170 perkusio-jole batuko dira bihar Okendo eta inguruetan



Dinbi Bandako kideek aurten ere argazki lehiaketa abiatu dute, larunbateko argazkiak maiatzaren 23a baino lehen bidali beharko dira [info@batukadentopaketa.eus](mailto:info@batukadentopaketa.eus) helbidera.

Okendo plaza Euskal Herriko batukada taldeen erdigune bihurtuko da larunbatean. Euskal Herri osotik etorritako Zozongo, Buruntzantzan, Dinbi-Banda, Sambamaña, Beriba, Kumbalaye, Builaka, Zaparrada eta Batukale taldeek Okendo eta inguruak girotuko dituzte dinbi eta danba. Denera 170 perkusio-jole espero dira Lasarte-Oriako Udalak eta Dinbi Bandak elkarlanean antolatutako ekintzetan.

**A**urtengo berrikuntza nagusien artean, lehen aldiz banakako izen ematearena da bat. Talderik gabe, norbanako batzuek izena eman dute Euskal Herriko 3. Batukada Topaketan parte-hartzeko. "Aurreko urteetako esperientzietatik eta eskakizunetatik jaso dugu aukera hau eta tailer batzuk antolatu ditugu parte-hartzaile hautentzat", adierazi du Mikel Olaiz Dinbi Bandako kideak.

Lasarte-Oriako udaletxearen izenean, Boris Nogales kultura zinegotzia izan zen aurkezpenean. Azpimarratu zuen "plazerra" dela halako ekimenak bultzatzeko lan egitea: "Dinbi Bandak azken hiru urteotako erronkari indartsu eutsi dio. Errekonozimendu bat merezi dute bikain ari direlako lanean. Ea datoren urtean ere topaketa hau antolatzen jarraitzen duzun", egin die dei.

### Egitaraua

Goizetik hasita, gauerrainoko egitarau zabala prestatu dute Dinbi Bandako kideek:

11:30, Haurren tailer irekia Porrotxen laguntzarekin; 10:30, Parte-hartzaileentzat ikastaroak; 12:45, Haurren emanaldia; 13:00, Txilibitu eztanda; 13:10, Poteoa. Do Ta Ke txarangarekin; 14:30, Bazkari herrikoa; 16:30, Ikastaroetako erakustaldia; 17:30, Sanbodromoa erdigunean; 18:30, Emanaldi Nagusia; 20:00, Topaketarako Erritmo nagusia joko da talde guztiekin; 22:30, Skakeitan taldearen kontzertua.

"Gure helburua batukada herrian zabaltzea da, eta bide batez primeran pasatzea, jakina. Horretarako Jalgunerekin batera ekimena lantzen arituz gara, eta Gazte Klubekoek ere

parte-hartuko dute", adierazi zuen Estitxu Garmendia Dinbi Bandako partaideak.

### Esker ona

"Oso pozgarria da gure proiektu honekin laguntzaileengana gerturatu garenean atea zabalik sentitzea eta ikustea", jarraitu zuen Garmendiak, "eskerrak eman Udalari eta topaketa egonkorragoa izateko euren alea jarri duten babesleei, guztiak gonbidatuta zaudete!".

Dinbi Bandan eta Batukaden topaketarekin festa "euskalduna, anitza eta irekia" antolatu nahi izan dutela esanez amaitu zuten astearteko agerraldia topaketen bultzatzaileek. Informazio gehiago nahi duenak [batukadentopaketa.eus](http://batukadentopaketa.eus) webgunean eta sare sozialetan topatu dezake.



**LASARTE-ORIA EKINEZ EGINA**

**HECHOS PARA LASARTE-ORIA**

**ESTITXU ALKORTA**  
LASARTE-ORIAKO ALKATEZARAKO HAUTAGAIA  
CANDIDATA A LA ALCALDIA DE LASARTE-ORIA

**ejj pnv**  
HAZER EGITEK EUSKADI HAZI ARAZI

Neure kabuz



Jexux Artetxe

Zainak

Udal hauteskunde berriak datozenean, betekizun politikoak gordetzea dagokigu, hiritar sena erakutsiz. Udala da gure eguneroko bizieran eraginik handiena duen erakunde politikoa. Ez da ahaztu behar baina, Korporazioaren osaera bat edo bestea delarik ere, administrazioaren esparru mugatu horretatik aparte bizi garena neurri handi batean, arau ofizialek taxutu ezin dituzten tartetan. Udalaren ardurapekoak ez diren alor eta eginkizunetan.

Aurreko zutabe batean azaldu nuen irudi batekin jarraituz, Udalari hiriaren eraketa dagokio. Eta inork ez du ukatuko hirigintzaren garrantzia. Hiria ondo eratzea eta udal zerbitzu egokiak prestatzea funtsekoa dela gure bizimoduaren kalitateari eusteko. Baina, herrigintza egitura urbanoak sortzea edo udal araubideak onartzea baino askoz gehiago dela esan nuen eta berriro diot. Era berean, egunean-egunean herritar banako zein taldeek izandako harremanetan eta burututako ekinbideetan giten dugula herria.

Herritarren arteko harreman horiek herriaren nerbioak direla esan behar, edonola eta edonon sor daitezkeenak, nahita edo kasualitatez, diskretutasunean edo agerian, toki pribatu edo publikoetan. Etxeetan, dendetan, espaloietan edo plazetan garatzen ditugula harreman edo elkarlan horiek. Hortik datorkio Lasarte-Oriari duen bizitasuna. Gure gizartearen zainak behar den bezala babestu behar ditugula esatea derrigorrezkoa litzateke, osasuntsu iraun daitezten. Horren erantzukizuna ezin dugu besteren bizkarrean utzi. Bakoitzarena eta guztiona baita. Guztiona izanik, Udalarena ere bai. Hiriaren itzalean, herritarren (banako edo taldeen) influentzia soziala sendotuko litzateke, hiria beraren mesederako gertatuz.

Zorion agurrak



Eneko eta Sara

ZORIONAK bikote zuen laugarren eta zortzigarren urteurrenean. Muxu pila bat familia guztiaren partetik.



Eneko

Zorionak Krack!!! Merezki duzun bezala ospatu behar. Zazpi supermuxu etxeko partez...



Nerea

ZORIONAK, ondo pasa zure 11. urtebetetzean. Aita, ama, Josu eta familien partetik.



Julen

Zorionak eta ondo pasa zure egunean! 11 muxu etxeko partetik!!!




Asier

Zorionaki zure zortzigarren urtebetetzean famili guztiaren partetik. MUXU HANDI BAT.



Iker eta Nora

Zorionak Iker eta Nora. 9 eta 6 muxu handi aiatxo, amatxo eta familiaren partetik.



Izan

Zorionak txapelduna!!! Ondo pasa zure zortzigarren urtebetetze egunean. Milaka muxu familiaren partetik.



Luka

Zorionak Luka!! A ze urte pila bete dituzun!! Lau muxu potolo etxeko lauen partetik!!



Antonio

Zorionak Antonio! 80 musu potolo familia guztiaren partez. Segi horrela urte asko!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Gela alokatzen da Lasarte-Orian. 674 69 44 97.
- Salou. Apartamentua alokatzen da 4-6 pertsonentzako. Berritua eta aire egokituarekin. Erdialdean dago eta hondartza gertu du. Bi igerileku erabilgarri. Alokairua 350 eurotik gora astea. 616 148 168.

Lan-eskaintza

- Goiegi jatetxean astean ordu batzuk lan egingo lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzailea: Euskalduna eta bezeroari arretaz zerbitzua emateko gogoia duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketako zenbait lan ere egin beharko ditu.

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak eta garbiketak egiteko pertsona eskaintzen da. 648 19 84 56.

- Neska eskaintzen da externa edo orduka lan egiteko pertsona helduen zein ume edo gaixoen zaintzan. Paperak, erreferentziak eta berehala hasteko prest 627 10 90 78 Maria.
- Emakumea eskaintzen da interna edo externa moduan lan egiteko. Esperientziaduna helduen eta umeen zaintzan. 637 19 07 26.
- Neska arduratsua externa edo interna moduan lan egiteko prest ume zein helduen zaintzan. 632 14 28 11.
- Arratsalde edo asteburuetan haur zein helduen zaintzan edota garbiketako lanetan lan bila. 627 26 97 19 Iris.
- Lan bila nabil. Zaharrak edo umeak zaintzen. Interna edo externa moduan. 645 78 72 72.

Bestelakoak

- Logela alokatu eta etxea konpartitu nahi dut Lasarte-Orian. 651 92 53 49, Karlos.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Unax Sarasola Perez, maiatzaren 4an.



Heriotzak

- Pedro Olaiz San Jose, maiatzaren 12an, 78 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 16	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 17	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 18	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 19	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 20	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 21	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Laguntzailea



Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea  
Eizagirre, Jon Altuna E.  
**txintzarri@txintzarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maidier Segurola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako  
Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

Jesus Zaballos PSE-EE-ko alkategaia

# “Aurrera egiten duen herria nahi dugu”

PSE-EEko alkategaiak azken legegintzaldian herriaren garapena etenda egon dela uste du

**Jesus Zaballos da PSE-EEko alkategaia udal hauteskunde hauetan ere. Herritarren lehentasunei erantzuna berehala emateko konpromisoa hartzen du Zaballosek izan ere, asko dira bere ustez egin behar diren lanak. Herriaren etorkizuna herritarren esku dagoelako, enplegua sortzea garrantzitsutzat jotzen du Zaballosek.**

TXINTXARRI (ERREDAKZIOAN ITZULIA)

**Z**eintzuk dira zure ustez Lasarte-Oriak momentu honetan dituen beharrak?

Lasarteoriatarrek pairatzen dituzten arazo nagusiak langabezia, aparkaleku falta, etxebizitza eta kaleen eta errepideetako asfaltoaren egoera txarra dira. Eta gure ustez, horien gainean jarri behar du Udalak bere arreta. Irtenbideak ematen dituen Udal Gobernuak behar dugulako, ez arazoaren erantzule dena.

**Zein esparrutan eragin behar da gehien zuen ustez?**

Lasarte-Oria eta lasarteoriatarren etorkizuna enpleguaren esku dago.

Sozialistak aburuz hori da indartu behar den arloa. Izan ere, Bildu, EAJ eta Herritarren Plataformak proiektu batzuk, hala nola, 40 lanpostu sortuko zituen Goiegi-Gorako 4 izarretako hotela, Teresategiko eremu industrialak edo Michelin II-ren garapena gelditu dituzte. Proiektu hauetan zalantzarik gabe gure herritarrek lan aukerak izango zituzten eta ondorioz, bizitza duina izateko baldintzak berreskuratu.

**Ekonomia, merkataritza sustatu eta langabezia tasari erreparatuta zein neurri proposatzen dituzue?**

Lau urte hauetan PSE-EE oposizioan egon da eta eragile sozialekin batera enplegu mahai bat eratzea, enplegua sortzeko ekintzak finkatzen dituen Enplegu plana, pertsona ekintzaileei zuzendutako enpresa haztegia... proposatu ditugu, baita Bilduk atzera bota dizkigu aurrera eraman nahi izan ez dituen beste neurri batzuekin.

Gure konpromisoa, aipatutako ekimen hauen alde egitea da eta herriko komer-

tzioa sustatuko duten beste neurri batzuk hartzea. “Tratu On bat” webgunea hobetu behar dugu, merkataritzaren sektorea indartu eta Lasarte-Orian komertzio berriak irekitzera sustatuko duten ekintzak garatu behar dira.

**Hirigintzari dagokionean, etxebizitza eta aparkaleku eskaintza herrian nolakoa da egun eta nolakoa beharko luke?**

Bildu lau urte hauetan ez da esparru honetan inbertsiorik egiteko gai izan. Ez dira Babes Ofizialeko Etxeak eraiki, udalaren esku dauden etxe hutsak ez dira alokatu edo Okendon eta Tajamarreko biribilgunean dauden 124 eta 21 garajeei ez zaie irtenbiderik eman. Lasarte-Oriaren garapena geldituta dago eta PSE-EEK hori aldatu nahi du.

Zabaletako aldapa, Basaundi bailarako plaza edo sartzen erraza izateko Goikale 20 eta 22 eremuen berrurbanizazioa proposatzen dugu. Uistin kalean aparkaleku berriak sortu nahi ditugu. Erribera Kalerako irtenbide adostu bat eman nahi dugu, Sasoeta auzoko hiri-antolamendutik kanpo dauden lokalak eraitsi. Laburbilduz, aurrera egitea da gure nahia.

**Herrian dauden zerbitzu publikoei dagokienez, zer hobetu/indartu behar da?**

Gure kaleetako asfaltoaren egoera tamalgarria da. Bildu, EAJ eta Herritar Plataformak asfaltatze lan garrantzitsuak egingo zirela publikoki saldu zuten arren, ez dute bat ere egin. Honi bideetako seinaleak, zebra-bideak edo stopak desagertzen ari direla gehitu behar zaio... aspaldian ez dira berriro margotu.

Gure kale eta auzoak guztiz utzita daude eta egunerok hauetan ibiltzen garela kontutan izanda, Udalak hauei irtenbiderik ez ematea ezin dugu onartu.



Alkate aukeratzeko banante, urtero asfalto eta seinaleak margotzeko kanpainak egiteko konpromisoa hartzen dut.

**Kultura alorrean, zeintzuk lirateke lan ildoak? Euskarak zein leku dauka?**

Lasarte-Oria kultura arloan herri aberatsa da, baina ez dago gunerik aberastasun horren pareko denik. Erakusketak areto berri proposatzen dugu eta Antonio Mercero museoaren alde egingo dugu. Honetaz gain, elkarteek haien ekintzak aurrera eramateko Elkartearen Hotela eskainiko diegu.

Sozialistok aire zabaleko museo baten alde egingo dugu. Kultura gure kale eta plazetan egon eta herriaren zati izateko.

**Eta kirolak?**

Urte hauetan guztietan kiroldegien berrikuntza egiteko egon da. Nahiz eta sozialistek proiektu bat egin, krisi ekonomikoak eta egungo Udal Gobernuak aurrera eramatea oztopatu dute. Nire konpromisoa kardio ariketak eta spinninga baldintza hobetan egin ahal izateko, gela berriak sortzea izango da. Era berean, gimnasioa handituko litzateke.

**Zer iruditzen zaizu herriaren parte-hartzea erabakietan eta ekimenetan?**

Herritarren parte hartzea ekimen positiboa da udalaren

kudeaketan. Baina ezin da hau hauteskunde kutsuarekin edo modu mediatikoan erabili.

Lau urte hauetan zehar ez da udal aurrekontuak eratzeko parte-hartze proiekturik egin eta hain zuzen, hauetan erabakitzen dira hurrengo urtean egingo diren ekintzak.

Herritarrek ere lekua duten hirigintza edo hezkuntza kontseiluak ez dira ia bildu. Iradokizun eta kexa orrialdeak edo alkatearekin bilera orduak desagertu direla esango nuke Gobernu honekin.

PSE-EEK herritarren parte-hartzearen alde egiten du, baina ez herritarrek erabiltzearen alde.

**San Pedro jaiak deszentralizatuak izan behar dute edo Okendok izan behar du gune bakarra?**

Lasarte-Oria herritar guztiek osatzen dugu, zein auzotan bizi garen kontuan izan gabe. Udalak kultura eskaintzaren deszentralizazioa sustatu beharko luke, ez bakarrik San Pedro jaiena. Era honetara, herrian antolatzen diren ekintzak auzo eta lasarteoriatar guztien eskura egongo lirateke. Ezin ditugu auzoaren arabera, lehen mailako eta bigarren mailako herritarrek sortu.

**Zeintzuk dira finkatutako lehentasunak eta erronkak? Herritarrek duten edozein**

arazo lehentasun izan behar du Udalarentzat. Baina dudarik gabe enplegua sortzea, aparkalekuaren arazoari irtenbidea ematea, herritarrentzat etxebizitza eskuragarri izatea, kiroldegiko instalazioak hobetzea, asfaltatze kanpaina handia egitea... dira PSE-EErentzat lehentasunak. Gure konpromisoa irtenbideak azkar ematea izango da.

**Alkate izatekotan zer da egingo duzun lehenengo gauza?**

Alkate aukeratzeko banante, egingo dudun lehenengo gauza nire bulegokoa atek salbuespenik gabe irekitzea izango da.

Alkate batek bere bulegoan herritarrei haien arazoak azaltzeko aukera ez ematea ez dut ulertzen. Herritarra nor den edo arazoa zein den kontuan izanda gabe, alkateak herritarrek jaso behar dituela iruditzen zait.

Azken lau urte hauetan herritar askok egungo alkateari hitzordu eskaerak egin dizkiote, baina ez dute erantzunik izan edo luzamenduekin ibili dira. Herritarrek hartzen ez dituen alkate bat izateak, frustrazioz betetzen ditu herritar asko. Hori bai, gero parte hartzearekin ahoa betetzen zaio.

Horregatik, nire lehenengo neurria nirekin egon nahi duten pertsonen alkatetzako atek arazorik gabe irekitzea izango da.

**Nolako herria irudikatzen duzu lau urte barru zure zerrendak gobernatzeko balu?**

Etorkizun hobe baterantz doan Lasarte-Oria nahi dugu sozialistok. Ezin dugu onartu 2015. urtean beste garai batzuetan baino udal zerbitzu kaxkarragoak izatea.

Aurrera egitea ez da, karramarroen antzera, atzera ibiltzea. Aurrera egitea, onera egitea da.

Lasarteoriatarrek bizitza kalitate hobea izatea nahi dugu. Herritarrek herrian eskaintzen diren gauza guztiengatik gurean bizitzen geratzea nahi dugu. Lasarteoriatarrek direla harro, ozen eta argi esan dezatela nahi dugu.

# Legegintzaldiko azken ohiko batzarra

Gaur aurrekontuak onartzeko ez ohiko Udalbatzarra izango da

Ohiko udalbatzarra izan zen asteartean eta honetan gai gutxi eztabaidatu zituzten alderdiek. Zenbait akta onartu zituzten eta PSE-EEK aurkeztutako bi mozio landu. Gaur, 10:00etan, 2015eko aurrekontuak onartzea izango dute gai nagusi ez ohiko bilkuran. Beraz, legegintzaldiko azken ohiko batzarra izan zen asteartekoa. Izan ere, ekaineko ohiko bilkura ez egitea adostu dute alderdiek egun horietan osatu beharko delako udal berria.

## TXINTXARRI

Ohiko udalbatzar azkarrak izan zen asteartekoa. Bukaeran momentu hunkigarriak ere bizi zituzten zenbait zinegotzik, izan ere, egun batzarra osatzen duten zenbait kide ez dira egongo datorren legegintzaldian. Esker oneko hitzak izan zituzten PPko Vanessa Velez eta PSE-EEko Martin Morenok.

Pablo Barrioren azalpenen ostean, aurreko batzarretako aktak onartu zituzten alderdiek. Jarraian, PSE-EEK aurkeztutako bi mozio izan zituzten hizpide.

### Nepal

Lasarte-Oriako PSE-EEK Nepalen lurrikararen ondorioz pairatutako kalteak konpondu eta arintzeko Gurutze Gorriari 10.000 euroko laguntza emate

tea eskatu zuten udalbatzarrean mozio bidez. Zehazki, alkateari eskaera egin zaio kreditu aldaketa bat egin dezan laguntza hau bideratu ahal izateko.

Jesus Zaballosen hitzetan, "lurrikarak herrialdeak osasun zerbitzuetan dituen pertsonal eta baliabideen gabezia agerian utzi ditu. Lurrikarak utzitako zauritu larrien kopurua handia izan da eta gainezka egin die".

Horregatik, alderdi sozialistak Udalarri laguntza humanitaria eskaintzea eskatu zion. EHBilduko zinegotziak abstenitu egin ziren eta gainontzeko alderdien aldeko bozkarekin onartu egin zen mozioa.

Jarraian, PSE-EEK ere Lanbide herrian zuen formazio zentroaren itxieraren inguruko mozioa aurkeztu zuen. Hain zuzen, herrian dagoen langabezia tasa dela eta zentroak for-



Ekaineko ohiko bilkura ez da egingo udal berria osatzeko datekin bat egiten duelako.

mazioa eskaintzea oinarritzat jo zuen Zaballosek. "Zentro hauen eskumena Jaurlaritzako hezkuntza sailak hartu behar omen du baina atzerapen horrek zentro hauen etetea eragin du". EAJko Boris Nogalesek erantzun zion "zentroak 2009an utzi ziola formazioa emateari". Jaurlaritzan Toña enplegu sailburuak zentro hauen inguruan erantzun duela aipatu zuen jeltzaleak eta "garai batean herrian garraio zentroa izan behar zela esan zitzaigun eta ezerezean geratu da". Zaballosek "Jaurlaritzako aldaketak" eragin zuela gelditzea zioen.

EAJren abstentzioarekin beste alderdiek onartu zuten zentroaren itxieraren inguruko

mozioa. Honen itxieraren aurka azaldu zen bilkura eta konpromisoa hartu zuen jarrera hau Lanbiden zein Jaurlaritzan jakitera emateko.

### Agurrak

Gai zerrendako azken puntua zen galdera eta erreguen txanda. Vanessa Velez PPko zinegotziak hitza hartu eta "eztabaidarik gabeko bilkura" baliatu zuen agurtzeko. Vanessa Velez ez da PPko zerrendan izango eta asteartekoa izan zen bere azken ohiko plenoa. Hunkituta eskerrak eman zizkien beste alderdietako kideei, baita Udaleko langileei ere urte hauetan emandako laguntzagatik "eta momentu onak eta ez hain

onak bizi izan ditugun arren, Lasarte-Oriaren alde egindako lanaz harro nago".

Zaballosek hainbat galdera egiteke utzi zituen agurren txanda bat errazte aldera eta jarraian hitza hartu zuen Pablo Barrio alkateak balorazio txiki bat egiteko "guztientzat urte bereziak izan dira hauek eta lau urte hauetan batzuetan gauza onak eta beste batzuetan okerrak egin ditugu denek. Akatsetatik ikasten ere jakin dugu".

PSE-EEko Martin Moreno ere agurtu zen. 29 urteren ostean, alderdi kideei eskerrak eman zizkien emandako laguntzagatik eta Froilan Elespe gogoratu zuen. "Herriaren alde gauza on asko egin ditugu sozialistok".

## Garaikoetxea eraikinean jangela

Aspaldiko eskaera zen Landaberri eskolako Garaikoetxea eraikinean jangela eraikitzearena.

Egunero ikasleak Udalak Michelineko kirol gunean daukan eraikinerara mugitu behar izan dira bazkalorduan. Iazko uztailean, Hezkuntza sailak konpromisoa hartu zuen ikasturte honen amaieran jangela egiteko. Orduan 150 ikaslerentzako lekua izango duen jangela izango zela zehaztu zen baita egungo aparkalekuan egingo zela ere.

Hezkuntza saileko ardura-dunekin bilerak egin eta Boris Nogales, Lasarte-Oriako hezkuntza batzorde-buruak adierazi duenez, jangela gertu dago.

Astelehenean egin zen Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordean Garaikoetxea eraikinean Eusko Jaurlaritzak egin behar duen jangelaren informazioa eman zuen honek.

Batzordean jakitera eman bezala, Gipuzkoako Delegaritzan, maiatzaren 7an izandako bileran, beste gaiekin



Oinez edo autobusen mugitu behar dira haur eta gazteak bazkaltzera joateko.

batera, hezkuntza-delegatuari jangelaren informazioa zuzena eskatu zitzaion eta "albietak oso baikorrak dira".

Maiatza bukaeran jangela eraiki beharko duen enpresarekin kontratua sinatu nahi du hezkuntza sailak eta behin hau sinatzen dela, gehienez bi hilabete eta erdian, obrak bukatuta egon beharko du, "beraz, irailerako jangela martxan egon daitekeela esan genezake" aipatu du Nogalesek.

"Gaia oso garrantzitsua

izan da legealdi osoan zehar eta buru-belarri aritu gara hezkuntza delegazioarekin lanean, delegatu ohiarekin zein Gema Gonzalez de Txabarri egungo delegatuarekin eta horrekin batera, Landaberri guraso elkartearekin eta eskolako zuzendaritzako ordezkariarekin".

Gainera, jangelaren gaiari azken urte eta erdian hezkuntzan eman zaion lehen tasuna ikusita, "bileran emandako epeekin oso baikorrak gara".

## Errigoraren kontserba eskaintza berria eskura



Errigora ekimenak kontserba loteen kanpaina abiatu du oraingoan. Sasaki produktu eta olioaren kanpainen izan zuten arrakasta errepikatzea espero dute.

Kanpaina honetan Nafarroa Hegoaldeko hiru ekoizleek parte hartu dute: Iturri, Maria Jesus eta Pedro Luis etxeetako produktuak daude aukeran. Iaz bezala, sei produktu lote eskaintzen dira: potxak 720ml-ko 12 poto, 34 eurotan; orburuak 720ml-ko 12 poto, 41 eurotan; pikillo piperrak 425ml-ko 12 poto, 35 eurotan; pikillo piper ekologikoak 250ml-ko 12 poto,

41 eurotan; zainzuriak 425ml-ko 10 lata, 30 eurotan eta barazki menestra 720ml-ko 12 poto, 36 eurotan.

Dagoeneko herritarrek eskaera egin ahal izango dute aurreko kanpainetan bezala Ttakuneko bulegoan.

Bertan eskaera orria bete eta ordainduta utzi beharko da eskaria.

Eskaerak egiteko epea maiatzaren 26ra arte luzatuko da eta ondoren, produktuak jasotzeko egunak, ekainaren 10 eta 11 izango dira. Ordua eta lekua aurrerago emango zaie jakitera eskatzaile guztiei.



## Alkategaiak boto eske

Herrian aurkezten diren bost zerrendetako kideak kanpaina egiten ari dira

Kanpainaren hasiera ofizialarekin batera kalera irten ziren alderdiak herritarrengana hurbildu eta boto eskean. Asteazkeneko azoka izan ohi da alderdien topaleku. Aipatu behar da aurtengoan hainbat izan direla etxez etxeko bozka ematea erabaki duten alderdiak.

TXINTXARRI

Alderdietako ordezkariak asteazkenean azokara hurbildu ziren euren programa zabaldu eta botoa eskatzeko. Bertan izan ziren PSE-EEko alkategaia Jesus Zaballos, EHBilduko zerrenda burua Pablo Barrio, PPko Alex Saenz hautagaia, baita EAJko Estitxu Alkorta ere. Lasarte-

Oriak Ahal Du taldeko kideak ere bertan izan ziren.

Zaballosek gainera, Idoia Mendia Euskadiko idazkari nagusiaren eta Rafaela Romero Batzar Nagusietako bozeramailearen babesa izan zuen.

Era berean, EHBildu eta Lasarte-Oriak Ahal Du alderdiek mahai informatiboak jarri dituzte auzoetan. Alex Saenz PPko alkategaiak asteartean Arantza Quirogaren bisita izan zuen.

### Asteburuko ekintzak

Hala ere, beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte gurean, EHBilduk esaterako ekitaldia egingo du gaur ostirala 19:30ean Okendo plazan. Bertan herriko zerrenda osatzen duten herritarrekin batera Foru Aldundira aurkezten den Xabier Olano izango da besteak beste.

Bide beretik joango da Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldeak larunbaterako antolatu duen ekitaldia. Hau 11:30ean hasiko da Elizatze plazan eta Arkaitz Naya herriko alkategaiarekin Ahaldu Nagusi izateko hautagaia den Juantxo Iturria izango da bertan.



# USURBILGO LANBIDE ESKOLA IEFPS USURBIL GLBHI

## Ate irekiak Maiatzaren 16an

GOI-MAILAKO  
ERDI-MAILAKO  
**HEZIKETA  
ZIKLOAK**



Energia eta ura



Arbitza bidea 29 (Zubieta)  
20170 USURBIL  
Tel.: 943 364600

eskola@lhusurbil.com

## LABURRAK.-

## Babyauto Zarautzen garaipena Alcobendasen

Alcobendas eta Babyauto Zarautz taldeen arteko norgehiagoka jokatu zen asteburuan Madrilgo Las Terrazas zelaian. Zarautzko taldeak Astin jokatuak partidaren errebantxa hartu nahi zuen eta Zarautzko zaletuen pozerako ederki egin zuten Fran Puertasen mutilek 8-15 irabaziz. Alcobendas Oho-



rezko B Maila irabazteko faboritoa da eta orain arte ez zuen partidarik galdu igoera fasean.

Beroa egin arren, Babyauto Zarautz taldeko mutilak baloi obalatuaren jabe egin ziren partida hasieratik. Ederki aritu ziren erasoan, baita defentsan ere. Nahiz eta madrildarrek borrokatu, Zarautzko taldeak ez zuen amore eman eta garaipena erdietsi zuen maila handia eman dezakeela erakutsiz.

Partida honetan Xabi Rekondo, Unai Urruzola, Ander Rekondo eta David Vega gazte lasarteoriarrek jokatu zuten eta besteak beste, Xabi Prieto eta Imanol Galarraga euren taldeki-deei animoak ematen egon ziren.

## Luken Carbayeda Bazpiko txirrindularia bigarren Zestoako II. Gurutzeaga Sarian

Bero sapa izugarria izan zuten igande arratsaldean Zestoako Foru plazatik abiatu ziren 66 lasterkariak. Zesto, Aizarnazabal, Oikia eta Iraeta inguruetan 57 kilometro osatu ostean, kadete mailako 40 gaztek zeharkatu zuten helmuga marra, tartean Bazpiko hiru txirrindulariak. Guztietan onena Luken Carbayeda izan zen 2. postuan sailkatuta, Unai Iribar Limousingo ziklistaren atzetik. Podiuma Jokin Sarasola Donosti Berriko mutilak osatu zuen. Irabazleak batz besteko 36km/h abiadura markatu zuen.

Bazpiko Oier Urbizu 13. sailkatu zen eta Asier Ibarbia berriz, 21. izan zen, pelotoi nagusiko azken tokian. Hirurak lehen tropelean sailkatu izanak saritxoa ere izan zuen, taldekako bigarren postua erdietsi baitzuten Donosti Berriren atzetik. Asteburuan Bazpiko jubenilek Mutrikun (87km) eta kadeteek Abadiñon (53,5km) lehiatuko dute.

Bestalde, hasi da Italiako Giroa eta baita Ostadarren ziklisten porra ere. Honako oharra zabaldu du Ostadarrek: "Axel Domont (141) txirrindularia beste talde batean errepikatua dagoenez, 9. taldetik kenduko dugu. Pieter Serry (171) eta Rubén Fernandez (172) txirrindulariak ez dute puntuatuko, 10. taldeko lehenengo bien numerazio berdina dutelako. Beraz, boletuetan hauetako baten bat agertuz gero (Domont, Serry edo Fernandez), Dupont (142) txirrindulariarengatik ordezkakuko dugu. Barkatu eragozpenak!".

Amaitzeko, Ander Barrenetxea Murias taldeko ziklista neoprofesionalak 62. postuan amaitu zuen Madrilgo Itzulia. Erreperatu da Choleteko klasikoan (Frantzia) izan zuen errikotik.

## MENDI-LASTERKETAK.-

## Bost herritar Zegama-Aizkorri mendi maratoian

Endika Gartzia, Peio Fadrique, Mikel Izagirre, Antonio Urruzola eta Ivan Granada arituko dira igandean Munduko Kopako proban

Asko hitz egiten da Kilian Jornet, Luis Alberto Hernando edota Emelie Forsberg ultra lasterkeriez. Mendi-maratoiak modan daude eta jende asko dabil Buruntza, Adarra eta Andatza inguruetan entrenatzen. Zortedunek, igandean Zegaman dute zita.



Parte-hartzaileen argazkiak eta Endika Gartzia elkarriketa txintxarri.eus webgunean.

## JON ALTUNA EGITEGI

2002an egin zen lehenengoz Zegama-Aizkorri mendi-maratoia, uztailaren 7an, San Fermin egunez. Orduko hartan bi herritar irten ziren, probak apenas oihartzunik zuenean. Alex Tetuan eta Joxerra Maiz izan ziren lokarriak estu lotu eta maratoiko kronoa sei orduren bueltan errenditu zuten bi herritarrek.

Duela hamahiru urteko parte-hartzaileak 'zoroak' ziren. Aurtengo bost parte-hartzaileak 'zortedunak' dira. Nola aldatzen diren gauzak kirolean urte gutxiren buruan. Denera 6.000 lagunek eman zuten zozketan izena eta 250ek jaso dute dortsal preziatua. Beste 200ek sailkapeneko merituz edota babesleek bidez lortu dute parte-hartze eskubidea.

## Herritarren asmoak

Lasarte-Oriak bost laguneko espedizioa eramango du Zegamara: Endika Gartzia, Peio Fadrique, Mikel Izagirre, Antonio Urruzola eta Ivan Granada.

Bakoitzak bere asmoak, erronka propioak ditu eta guk guztien hitzak bildu ditugu:

Izagirrek lau ditu eginak dagoeneko eta helburua "bukatzea" dela dio: "Lesioekin ibili naiz eta ez dut nahi bezala prestatu, baina hori dena ahaztuta, behin proban zaudenean... Egurra!".

Zegama bakarra du egin Granadok, iazkoa: "Aurtengo helburua argia da, 2014ko marka hobetzea. Bost ordu eta erdiren bueltan ibili nahiko nuke, gogoz nago".

Antonio Urruzolak lehena du, "errebotez" jaso omen du dortsala. Lagun batek sponso- rren bidez dortsala lortu, lesionatu eta Urruzolak gustu handiz hartu zuen lagunaren plaza: "Zozketa bidez tokatzea ia ezinezkoa da, eta pentsa, sekulako ilusioarekin nago, helburu bakarra ahal den gehien gozatzea da".

Gezurra badirudi ere, Peio Fadriqueren lehen Zegama-Aizkorri da 2015ekoa. Nekez egongo da Euskal Herrian ezagutzen ez duen kros herrikoi, triatloi edo mendi- lasterketarik. Zegama da horietako bat, aurtengora arte:

"Zegaman ikusle eta bolondres lanetan aritu izan naiz eta aurtun dortsala tokatu zait. Nire asmoa Santi Spirituko kontrola pasatzea da eta handik gero lasaiago lasterketaren giroaz disfrutatzen joatea".

Sailkapen on bat egiteko aukera gehien duena Endika Gartzia da. Asteburuan egin du azken testa, Erlaitze-Aiako Harriak proban. Podiumera igo zen: "Duela bi urte 4:29 egin nuen Zegaman. Aurtun, 25-30 km arteko lasterketarako entrenatu dut. Ez dut hiru ordu baino gehiagoko entrenamendurik egin. Lasai atera eta ondo bukatu nahi dut".

## Ibilbidea

Ibilbidea ez du misteriorik. Zegamatik atera, Bidarteko gainera igo, Otzaurtera pixka bat behera egin... Eta gora! Aratz, Santi Spiritu, Aizkorri, Aitxuri, Urba, Andraitz eta azken hamabi kilometroak beherantz. Denera 42,196 kilometro, 5.472 metroko desnibel positibo metatuarekin.

Eta bidezidor bazterretan, jendetza. Ez da plan txarra iganderako, goizeko 9:00etatik aurrera Zegaman da zita.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 16

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Añorga  
Infantilen Oho-  
rezko Kopa  
17. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Astigarraga  
Jubenilen Oho-  
rezko maila  
30. jardunaldia.

Martutene, Donostia, 15:30ean

Martutene - Ostadar SKT  
Jubenilen I. maila, Igoera Fasea  
18. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar - Ordizia  
Oho-  
rezko Erregional maila  
33. jardunaldia.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 15

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean  
Viña del Mar - Reformas Lagunak  
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean  
Trumoi - Bar Also

Larunbata 16

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean  
Indaux - Izkiña Taberna

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Ilargi - Txoko Taberna  
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean  
Bar El Punto - Insausti

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Bar Buenetxea - Txindoki  
Monseko kiroldegia, Donostia, 12:30ean  
Ostadar Cecilia - Muxarra  
Gipuzkoako III. mailako final handia.

## ERRUGBIA

Igandea 17

Asti, Zarautz, 12:00etan  
Zarautz Beltzak - CAU Valencia  
Oho-  
rezko B mailako igoera-fasea.

Kontxa, Donostia, 11:00etan

Beltzak taldeko neska-mutilek  
Kontxako torneoan parte-hartuko  
dute, 12 eta 14 urtez azpiko mailetan.

## TRIATLOIA

Larunbata 16

Iruñea, 14:00etan  
Ramon Altuna, Imanol Arteaga eta  
Zigor Gallardo Saiatuz taldeko  
triatletek Iruñeko Iron Man erdian  
parte-hartuko dute. Alkozeko  
urtegi egingo dituzte 1,9km igeri.  
Allozetik Iruñeara 85km bizikletaz  
eta hirian 21km korrika.

## SASKIBALOA

Larunbata 16

Manteo Kiroldegia, Grosen, 18:00etan  
Ostadar SKT A - Ordizia  
Jubenil neskek, errendimendua  
Gipuzkoako Final Fourreko finala.

Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Bera Bera Ilunbe  
Kadete neskek, parte-hartzea.

Igandea 17

Benta Berri kiroldegia, 10:00etan  
Bera Bera Manteo - Ostadar SKT  
Kadete neskek, parte-hartzea

## Agenda

Larunbata 16, Okendo plaza



### Barrunba herrian

Euskal Herriko 3. Batukaden Topaketak Okendo plaza hartuko du. Kalejira, haur zein helduentzako tailerrak, bazkari herrikoia... Ekintza ugari izango dira. Arratsaldean bederatzi batukadek eta nahi duten herritarrek Lasarte-Oriako erdialdeari erritmoa jarri eta dantzan jarriko dituzte bizilagunak.

**10:00etan**, herriko auzoetatik batukada diana egingo da Jalgune elkarteko lagunekin. Parte-hartzailen iritsiera eta parte-hartzaileen-tzat txokolatada gozoa.

**10:30etik 12:30era**, Partehartzailentzat ikastaroak izango dira. Lau ikastaroren artean aukeratu ahal izan dute: rezibatukada, body percussion, dantza afrikarrak edo txalaparta. Ikastaro hauek itxiak izango dira, baina bazkalostean ikasitakoaren erakustalditxoaz gozatzeko aukera izango da.

**11:30etik 12:45era**, Haurren tailerrak Porrotxen laguntzarekin. Gerturaten diren haur guztiek tailer ezberdinetan doan parte-hartzeko aukera izango dute.

**12:45ean**, Goizean zehar ikasitakoa erakutsiko dute hurrek emanaldi txiki batean.

**13:00etan**, Txilibitu eztanda izango da. Festari hasiera handia emango diote partehartzaile guztiek.

**13:00etatik 14:00etara**, Poteoa DO TA KE txarangarekin Insausti, Jalgi, Trumoi, Ilargi eta Doner Kebab tabernetan.

**14:30ean**, Aurtengoan bazkari herrikoia izango da. Gosez dagoen edonork gozatu ahal izango du paella goxoa! Tiketak aurretiaz erosi beharko dira Jalgi, Ilargi, Insausti eta Trumoi tabernetan.

**16:30ean**, Ikastaroetako erakustaldia.

**17:00etan**, Topaketa erritmoaren errepasoa.

**17:30etik 18:30era**, Sanbodromoa eta photocalla.

**18:30etik 20:00etara**, Ekitaldi nagusian batukada talde bakoitzaren 5 minutuko emanaldiaz gozatu ahal da.

**20:00etan**, Emanaldi nagusiari topaketako erritmoa joaz emango zaio amaiera.

**22:30ean**, Festari amaiera emateko, Skakeitan taldearen kontzertuaz gozatu ahal da.

## Lasarte-Oria

### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN

Gaur, ostirala 15, 22:00etan

Txaloren "Erdibana" antzezlanak ikusi ahal izango da. Ama bat jada urteetan sartua, enbolia ta gripearekin, baina hiltzeko oso gogo gutxirekin. 45 urteko semea du, hondatzen ari den enpresaren jabea bera, eta bera zaintzen duen 38 urtetako beste bat. Etxe baten jabe dira, baina derrigorrean saldu beharrean aurkitzen dira. Gauerdian, konta ezin daitezkeen sekretuak azaleratuko dira. Komedia berezia. Antzezleak Jose Ramon Soroz eta Iker Galartza dira. Sarrera 5,50 euro

### Udaberri Festa

Gaur, ostirala 15

ORMAZABAL LORADENDA

11:00-13:00 eta 17:00-19:00, "Hazi zure sesamoa" tailerra heldu, zein haurrei zuzendua.

OLMI MERTZERIA

17:00-20:00, Puntu tailerra helduentzat eta haurrei zuzendutako borla tailerra.

ZUMABURU LIBURUDENDA

18:00-20:00, Plastilina tailerra.

BUENETXEA KAFETEGIA

20:00-23:00, Country jaialdia.

ATERPEAKO BESTE DENDA ETA TABERNETAN  
Beharpenak, eskaintza bereziak,

degustazioa, 2x1 pintxoetan edo pintxo bereziak.

### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN

Asteartea 19, 18:30ean

Jule Goikoetxeak 'Euskal Estatuagintza Feminista' hitzaldia eskainiko du. Irakurle txokoak antolatutako ekintza da. Sarrera irekia.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarrion kanpainako selfie-kin. "ElkarriOn adimen urritasuna duten

pertsonek asko dute emateko" kanpainaren barruan, jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MERCERO ARETOA

Maiatzak 8 eta 15, 19:00-21:00.

Maiatzak 9, 10, 16 eta 17 12:00-14:00 eta 19:00-21:00

Lasarte-Oriako Udalak, Antxota artisten elkarteak eta herriko sortzaile batzuek elkarlanean antolatu dute Lasarte-Oriako artisten erakusketa berezi hau. Guztira bederatzi egileren obrez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Eskultura, pintura, musika, argazkilaritza eta zurgintza lanak dira, denera 50 bat. Guztion Lasarte-Oria proiektuaren barruko ekintza.

## Herritarren txokoa

### Torredembarrara irteera

Lasarte-Oriako lagun talde batek Kataluniako Torredembarra herrira joateko autobusa antolatu du.

Topaketa kultural honetan parte hartzeko jendea behar dute. Berezi Oriako Sorgin Dantza dantzatuko duten herritarren bila ari dira.

Maiatzaren 29an izango da irteera eta 31an itzuliko dira. Autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Hilaren 30eko zikiro janarena berriz, 20 euro.

Izena emateko zerrendak Artizar eta Ilargi tabernetan daude. Internetez, [lot.topaketa@gmail.com](mailto:lot.topaketa@gmail.com) helbidera idatzi dezakete interesatuek.

### XXXIV. Santa Ana pala txapelketako izen-ematea

Zabalik dago Santa Ana pala txapelketako izen-emateko epea.

Interesa duten herritarrek Abend tabernan egin dezakete inskripzioa. Izen-ematea doan da.

Lasarteoriatar guztiak txapelketa herriko honetan parte-hartzera animatzen dituzte antolatzaileek.

### Gaixo dauden presoan aldeko ekimena

Larunbatean "Libre eta bizirik larriki gaixo dauden presoak kalera!" mobilizazioa Askatasunaren plazatik abiatuta 12:00etan. Euskal Herrian zehar, gaixo larri diren presoan herrietan egin asmo den mobilizazio egunera gehituko da Lasarte-Oria egingo den ekintza sinbolikoaren bidez.

## Hemeroteka

### Duela 1142 ale

Maiatzaren 23an 17 urte beteko dira Ostadarreko Erregional Emakume futbol taldeak lehen aldiz kopa irabazi zuela.

Rober Iglesias eta Fernando Elvirak zuzentzen zuten taldeak denboraldi ederra egin zuen eta merezitako txapelketa eskuratu zuen.

Zumaiako Aita-Mari futbol zelaian emozio handiko partida jokatu zuten Ostadarreko neskek Zarauzko Antoniano taldearen aurka. 100 zaletu inguru eta Erketz EDTko txarangak lagundu zuten taldea norgehiagoka erabakior honetan.

Lehen zatian bana geratu ziren taldeak. Begoña Tokerorena izan zen gola. Kristina Alvarezen golak garaipena eman zion Lasarte-Oriako taldeari eta jaiak eztanda egin zuen lehenik Zumaiaren eta herriaren ondoren.

Gainera, Irune Aldaz kapitainaren azken partida izan zen. Taldeko kideek urtetan egindako lana eskertzeko banderatxo bat oparitu zioten.

Entrenatzaile eta jokalariren zazpi urtetako lanak fruitua eman zuen; gaur egun, Ostadarreko harrobiarekin gertatzen den moduan.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)

# Jule Goikoetxearen hitzaldia asteartean

'Euskal Estatugintza feminista' izango du hizpide



Jule Goikoetxeak ikerketa arloan lan egiteaz gain, Lauaxeta poesia saria eskuratu du 'Traktatus' lehenengo lanari esker.

**Irakurle Txokoak hainbat ekimen antolatu ditu azken hilabeteotan taldea ezagutzera emateko. Ekintza horien artean sartzen da Jule Goikoetxeak asteartean 18:30ean Manuel Lekuona kultur-etxean eskainiko duen 'Euskal Estatugintza Feminista' hitzaldia.**

Jule Goikoetxeak 'Euskal Estatugintza Feminista' hitzaldia eskainiko du asteartean Manuel Lekuonan. Irakurle txokoak antolatutako ekintza da. Goikoetxeak harreman estua du Lasarte-Oriarekin izan ere, bertan bizi izan zen urte luzez eta oraingoan Irakurle Txokotik egindako gonbidapenari erantzunez hurbilduko da gurera.

Zientzia Politikoak, Kazetaritza eta Filosofia ikasketak egin zituen (EHUn eta Cambridge-en) eta Doktora da Filosofian. Ikerketa alorrean aritu da besteak beste, demokratizazio prozesuak eta nazionalismoaren gaiak azter-

tuz. Hain zuzen horren inguruan elkarriketatu zuen TXINTXARRIK 2012an.

Egun irakaslea da EHUn Politika eta Administrazio Zientzien sailean. Ikerketa alorreko artikulu ugari argitaratu ditu eta iritzi emaile gisa aritzen da hainbat hedabideetan.

Astearteko hitzaldian, Goikoetxeak euskal estatugintza feminista zer den eta nola gauzatu beharko litzatekeen azalduko du.

Goikoetxeak berak esan moduan, euskal estatu feministaz hitz egiten duenean, "Estatua definitu daiteke era estatiko batean edo prozesu bezala, eta nik nahiago dut

prozesu bezala ulertu. Eta zertan datza estatugintza feminista? Politika publikoak egiterakoan, diskurso ofizialak artikulatzerakoan, zer den zer erabakitzerakoan, alegia, zer izango den enplegua, zer lana, nolako politika publikoak egingo diren, lana kobratuko den, edo enplegua bakarrik, edo ezer ez, zer sartuko den merkatuaren logikan eta zer ez, are gehiago, euskal estatu feminista horretan emakumezkoak edo gizonezkoak egongo ote diren, espazio publikoa nola okupatuko dugun, zer puntutaraino izango den etxea eremu publikoa edo pribatua... Gai horiek guztiak ikuspuntu feministatik zehaztean datza. Hori da estatugintza egitea ikuspuntu feminista batetik".

Hitzaldia irekia izango da eta Irakurle Txokotik herritarrek honetan parte-hartzera deitzen dituzte.

# Aterpearen Udaberriko jaia egun osoan

Merkataritza dinamizatzeko ekimena



Udaberriko festa ospatuko dute gaur Aterpeko zenbait denda eta tabernek. Egun osoan zehar eskaintza bereziak izango dira eskura eta arratsaldean, haurrentzako puzgarriak egongo dira Juan XXIII eta Zumaburu elizako plazetan 18:00etatik 21:00etara. Kalejiran ere ibiliko dira Ttiriki-Ttarrakako tritilariak 18:30etik aurrera.

## Marrazkiaren bila

Herriko bi ikastetxeekin elkarlanean, 510 haurrek marraz-

kiak egin eta Aterpeko dendetan jarri dira ikusgai. Aste osoan zehar euren marrazkia topatzen zuten umeei Aterpearen eskutik oparitxo bat jaso dute. Gaurkoa izango da azken eguna. Aterpeatik oso eskertuta daude Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriren parte-hartzearekin. Dagoeneko aste honetan asko izan dira opariaren bila gerturatutakoak eta herriko komertzioetan "mugimendua" sortu dela azpimarratu dute merkatariek.

# Atsobakarren greba



Gipuzkoako zahar egoitzetako langileak greban daude eta honekin bat egin zuten herriko Atsobakarreko langileek duela aste bate.

Erresidentzia gehienek Aldundiak proposatutako hitzarmena sinatu dute, Clece enpresak kudeatzen dituenak

izan ezik. Lasarte-Oriako Atsobakar egoitza hauetako bat da. Enpresak gainera ez du negoziaketarako asmorik agertzen. Hitzarmen "duina" eskatzen dute langilek.

Aste osoan zahar egoitza kanpoan elkarretaratzeak egin dituzte egoera salatzeke.



LASARTEORIATARROK

*gaur aile!*

in zeh... namos todas

Maiatza  
Ostirala

# 15

**Lasarte-Oria  
HERRI BIZIA**

Ekitaldi nagusia

Okendo planzan **19:30**



"Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna izango dira gure lana zuzenduko dutenak"